



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Francisco Michelena Celayeta.
Jose Maria Michelena Erasun.
Ezekiel Loiarte Santesteban.
Leire Bazterrika Loiarte.

2018ko otsailaren 1ean, 18:30etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohizkanpoko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. BASO LANAK.

Mahai gainean utzi da puntua.

2. URAREN BIDEA.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 73.2 c) eta 74. artikuluek xedatzen dutena kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. ““URAREN BIDEA”. TXIRRINDULAZ IBILTZEKO BIDEA ZUBIETAKO, ITURENGO, ELGORRIAGAKO ETA DONEZTEBEKO EREMUETAN” izeneko agirian dauden lanak kontratatzeko funtsezko baldintzak onestea, komunitate-publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jarraituz. Lanen aurrekontua 50.881,53 eurokoa da (gehi BEZa).

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapenak bidaltzea 5 enpresa hauei: Construcciones Mariezcurrena SL, Sasoi Erikuntzak SL, Apezetxea Anaiak SL, Excavaciones Joarbe SL eta Excavaciones Mikel Ubiria SL.

Eta bertzerik ezean, 19:20ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.